


Euskal AEn gizarte-babesaren gastu guztia BPGren %24,5 izan zen

Adindunekiko gastua prestazio guztien %38,4 izan zen

Euskal AEn gizarte-babesaren gastu guztia BPGren %24,5 izan zen 2010ean; datuok Eustatek landuak dira SEEPROS metodologiaz (Gizarte Babesaren Estatistika Integratuen Sistema Europarra). Datu horrekin Euskal AE 27-EBko batez bestekoaren (%29,4) azpitik da. Halere, aldea gutxituz doa: 2005ean ehuneko 7,9 puntu ziren; 2010ean, 4,8.

**1. grafikoa. Gizarte babeseko gastua
BPGaren % an**




Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontual

Erreferentziako beste adierazle bati erreparatuz gero, **biztanleko gastuari**, Euskal AEko biztanleko gizarte-babes gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) neurturik, 7.889 izan zen 2010ean, %9,7 handiagoa europar batez bestekoa baino. Batez besteko horren gainetik 2007an jarri zen Euskal AE. Espainiar batez bestekoaren gainetik ere bada, %25,4.

Euskal AEn gizarte-babeseko baliabideetan 15.970,6 milioi euro erabili ziren 2010ean, aurreko urtean baino %3,7 gehiago. Administrazio-gastuak kenduta, gizarte-prestazioen balioa 15.653,6 milioi euro izan zen 2010ean; metaturiko tasan urteko %7,8ko hazkundera 2000tik.


2. grafikoa. Gizarte babeseko gastua biztanleko (EAP)



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontual

Funtzioen arabera gizarte-prestazioen gastuari begiraturik, zati nagusia bi funtziotan metatzen da: “Adindunekikoa” eta “Gaixotasuna/Osasun arreta”. Adindunekikoan pentsioak eta ostatu eta etxeko arretaren asistentzi-prestazioak daude, guztira 6.004,2 milioi euro; prestazio guztien %38,4. “Gaixotasuna/Osasun arreta” funtzioko gastua: 4.443,0 milioi euro 2010ean, guztiaren %28,4. Barne ditu aldi baterako ezgaitasunengatiko prestazioak eta prestazio sanitarioak.

3. grafikoa. Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2010



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Langabezia funtzioaren gastuan langabezi-prestazioez gain enplegu-prestakuntzarakoa dugu; hirugarren da garrantzian, 2010ean gizarte-prestazioen %10,7, langabetu erregistratuko 12.693 euro. Funtzio honetako hazkunderik handiena 2009an izan zen, non %59,3 hazi zen 2008ren aldean.

“Etxebizitza” eta “Gizarte bazterketa” prestazioen gastua: 526,2 milioi, guztiaren %3,4; hazkunderik handiena izandako gastua da, %10,6 2009ren aldean. Izandako hazkundeetan bigarren, Adindunekikoa, %6,5, eta hirugarren Familia, %5,7, 2009ren aldean.

“Gaixotasuna/osasun arreta” funtzioa %0,4 murriztu da 2009ren aldean; izan ere, jaitsi egin dira aldi baterako ezgaitasunagatiko prestazioak dirutan eta mantendu egiten da arreta sanitarioaren gauzazko prestazio-gastua 2009ren aldean.

1. taula: Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2000-2010

	2000	2005	2008	2009	2010	Aldakuntza-tasa %		
						2009/08	2010/09	Urteko batez besteko
								2010/2000
GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA								
Milioi eurotan	7.518,5	10.987,6	13.798,4	15.399,4	15.970,6	11,6	3,7	7,8
Merkatu prezioko BPGaren %an	18,05	19,18	20,31	23,98	24,52	3,66*	0,55*	6,47*
Biztanleko EAP	4.284	5.699	6.950	7.551	7.889	8,6	4,5	6,3
FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE-PRESTAZIOETAKO GASTUA (milioi eurotan)								
GUZTIRA	7.362,4	10.762,3	13.499,4	15.065,9	15.653,6	11,6	3,9	7,8
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	2.169,6	3.316,0	4.168,2	4.461,4	4.443,0	7,0	-0,4	7,4
Zahartasuna	3.524,6	4.222,9	5.229,6	5.636,8	6.004,2	7,8	6,5	5,5
Langabezia	614,0	826,0	1.026,6	1.635,0	1.680,6	59,3	2,8	10,6
Beste batzuk	1.054,3	2.397,4	3.075,0	3.332,6	3.525,7	8,4	5,8	12,8
ADIERAZLEAK (eurotan)								
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanle bakoitzeko eta EAPn	4.195	5.582	6.800	7.387	7.732	8,6	4,7	6,3
"Gaixotasun / osasun-laguntza" funtzioan egindako gastua, biztanle bakoitzeko	1.043	1.572	1.934	2.060	2.046	6,5	-0,7	7,0
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	9.749	10.877	12.910	13.678	14.304	6,0	4,6	3,9
"Langabeziaren" funtzioan egindako gastua, erregistratuta dagoen langabetu bakoitzeko	7.897	9.741	12.134	13.569	12.693	11,8	-6,5	4,9

(*) aldea ehuneko puntuetan

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Gizarte-babeseko gastua egiten duten **unitate-instituzionalizatu**ei erreparatuz gero, Gizarte Segurantzak eta estatu-administrazioak eginikoa 2010ean guztiaren %59,8 izan zen; euskal administrazioek %32,1 eta instituzio pribatuek %8,1. Gizarte Segurantzak eta estatu-administrazioak eginiko gastuak du hazkunde-tasarik handiena 2010ean, %4,6. 2000-2010 aldian euskal administrazioek eginikoa da urteko tasa metatuan hazkunderik handiena duena, %9,6.

2. taula: Erakundeetako unitate taldearen eta urtearen arabera gastua (milioi €). 2005-2010

	2000	2005	2008	2009	2010	Aldakuntza-tasa %		
						2009/08	2010/09	Urteko batez besteko
								2010/2000
Gizarte Segurantzaren sistema eta Estatuko administrazioa	4.742,9	6.634,3	8.168,9	9.125,4	9.543,2	11,7	4,6	7,2
Euskal administrazioak	2.050,1	3.307,8	4.521,8	5.024,1	5.130,2	11,1	2,1	9,6
Erakunde pribatuak	725,5	1.045,5	1.107,7	1.249,9	1.297,2	12,8	3,8	6,0
Gizarte-babeseko gastua, guztira	7.518,5	10.987,6	13.798,4	15.399,4	15.970,6	11,6	3,7	7,8

Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Gizarte-babesaren kontuari buruzko informazio gehiago lortzeko, sartu ohar metodologikoan:
http://www.eustat.es/document/datos/Nota%20met_SEEPROS08_e.pdf

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako: Jose Javier Aramburu

Tel.: +34-945-01 75 80 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko gizarte-babesaren kontuari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko gizarte-babesaren kontuari buruzko datu-bankua